

Elkargunerantz

Linz Austriako 200.000 biztanleko hiri bat da, eta herrialde hartan ezaguna da altzairu ekoizle nagusia delako. Nazioarteko kultura esparruan, berriz, 1979az geroztik bertan Ars Electronica jaialdia antolatzen delako ezagutzen dugu, arte digitalaren inguruko munduko jaialdi garrantzitsuenetako bat.

Bertako Arte Ederren eta Industria Diseinuaren Unibertsitatean Interface Cultures saila dago, non arte digital interaktiboen izen handiko nazioarteko master bat irakasten den.

Enrique Tomas, musika esperimentalaren munduan Ultranoise izenarekin ezaguna, irakaslea da unibertsitate horretan, eta 2016ko martxoan Bilbora ekarri nuen hitzaldi, kontzertu eta bere lanaren aurkezpen batzuk egin zitzaizkion. Horiek UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean eta Bilboko San Frantzisko auzoko Sarean gune soziokulturalean izan ziren.

Elkargune horren harira proposamen esperimental eta ausartak zituzten zenbait artista bilbotar Austriako hirira proiektu bat gauzatzera eramateko aukera sortu zen. Antolatzaileen artean Alex de Europa artista madrildarra ere bazen.

Hautatutako artistak Karla Tobar, Amaia Vicente, Blanca Ortiga, Saray Pérez Castilla, Sandra Quintanilla eta Laurita Siles izan ziren.

Proiektua AFOn egin zen (Austria Garaiko arkitektura foroa) 2017ko ekainean eta uztailean zehar.

Shedding the skin (Azalberrituz) izena izan zuen proiektua hiri ereduaren aldaketan inguruko artista eta komisarioen hausnarketa batean zetzan. Bilbo hiriak, Guggenheim efektua dela medio, izandako mutazioa eta teknologiaren, kulturaren eta zerbitzuen alde egindako apustua Linz hiriarekin alderatu ziren.

Linz oraindik ere hiri industrialia da funtsean, baina azken urteotan idiosinkrasia hori aldatzeko eta hiri post-industrial bilakatzeko apustu oso sendo bat egiten dihardu, Bilboren antzera.

Proiektuaren azken xedea, niretzako, gaur egun Bilbon sortzen den arterik aurrerakoienaren zati bat erakustea zen, eta hori sei emakume artistaren eskutik egitea. Lengoaiekin esperimentatzen duten eta diziplinarteko elkarrizketak sortzen dituzten sortzaileei babesa ematea.

Nazioarteko proiektuak sortzen ditudanean edo halakoetan parte hartzen dudanean, beti nahi izaten dut bidaiatzen dutenen eta anfitrioi gisa jarduten dutenen arteko sinergie bide ematea. Artistek, adituek eta publikoak parte hartuko duten foroak, sareak eta ezagutzak sortzea.

Kultur kudeatzaile eta komisario gisa, urtero hainbat diziplinartako gutxienez 20 nazioarteko artista gonbidatzen ditut Bilbora haien obra erakustera, eta dagoeneko 15 urte daramatzat hori egiten. Era berean, urtero ahalegintzen naiz hemen egiten den zerbait gure herrialdetik kanpo erakusten, bai galeria, arte zentro eta jaialdietarako gonbidapenak onartzen, bai beste batzuetan, proiektuak sortzen.



Elkarguneak sortzen ditut non Bilbora datozen artistek, haien lana erakustez gain, hemen egiten dena eta horren egileak ezagutu ditzaketen. Interesgarria da publikoak eta artistek, bereziki gazteenek, bertatik bertara ezagutzea hemendik kanpo egiten ari direna, museoek eta arte zentro instituzionalek erakusten dituzten izen handiez harago. Eta are garrantzitsuagoa da esperientziak elkartrukatzeko abagunea izatea. Bilbon zein kanpoan egiten diren topaguneen bitartez elkarlan eta aukera emankorrak sortzen dira.

Erakusketa eta jaialdi hauek pizgarri ere badira kudeatzaile eta komisario gazteenak proiektu berriak sortzen has daitezten. Beste batzuek egiten badute, zergatik ez nik? Hala, sare berriak eta guztiontzako aukerak sortzen dira.

Noski, halako ekimen esperimentalek eta independentziaz burututakoek instituzioen babesa izan behar dute, ez daitezten bilakatu artista eta kultur langileen esplotazio-gune. Kultur lanbideetan prekaritatea ia sintomatikoa da, eta arazo horri heldu egin behar zaio.

Arterik esperimentalenak, praktika multidiziplinarrekin eta transdiziplinarrekin batera, ez du jaialdien testuinguruaz kanpo gure hirian erakutsia izateko aukera handirik izaten, orokorrean. Horregatik, ezinbestekoa da gaur egun diren edo izan diren Iturfest, Arte Hormonado lehiaketa, Zarata Fest edota Gau Irekia bezalako ekimenak babestea. Formatu hauek, gainera, balio erantsi bat daukate, euren topaleku izaera dela eta.

Horren guztiaren emaitza gisa, urtearen gainerakoan arte erakusketa interesgarriak garatzea ahalbidetu dezaketen publikoak eta aukerak sortzen dira. Jaialdiak esperientzia berriekiko jakin-mina duen publikoa batzen du, eta urte osoan zehar garatzen jarraitzeko aukerari ateak zabaltzen dizkio.

Mota guztietako topaketan aldeko apustua egiten dut, eta topaketok ezberdinen artekoak baldin badira, are hobeto.